



3 SANEAMENDUA

Kolektore berriko lanak hasi dira

Añarbeko urak enpresak eta Lasarte-Oriako Udalak Bekokale, Ola kalea eta Erribera aldean egingo den lanaren berri eman zuten atzo goizean. Lan honen bitartez, kiroldegia eta Zubieta-ko hondakin-uren ponpaleku berriaren artean 370 luzerako kolektorea ezarriko da. Honi, Lasarte-Oriako ur-zikinak Loiolako araztegiaren tratatu ahalko dira eta Oria ibaian ez da isurketarik izango, bere berreskurapena bultzatuz. Lanak lau hilabete iraungo ditu.

4 GIZARTEA

Elebetzen aldeko plataforma sortu da

Elebetz sorkuntza eta eztabaida askerako gunearen aldeko herritar plataforma aurkeztu zen atzo arratsaldean Okendo plazan. Herritar batek eta topaguneko jabeak mehatxua eta presioa jaso dituztela jakin arazi zuten agerraldian. Helburua gunearen jardura etetea eta okupazioa krimilizatzea. Herritarrak probarik gabe alkatetzak dekretu bidez mehatxua jasotzea eta mehatxua aurrera eramateko egindako bermerik gabeko prozedura ere salatu zuten. Honen aurrean, hartuko diren neurriak azaldu zituzten, hala nola, Udalean errekurtsioa aurkeztu eta Arartekoan salaketa jarri.



Herriko ikastetxeetako ikasle zein irakasleek, eguraldia lagun zutela, gogotik astindu zituzten danborrak San Sebastian egunaren bezperan.

Rataplanak Lasarte-Orian

Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetan jai ederra izan zen

Danborra, mantala eta sukaldari txanoa, kolore zuri urdinak izan ziren nagusi astearte arratsaldean Lasarte-Oriako ikastetxeetan. Sarriegi eta beste hainbat doinuren erritmora gaztetxoek San Sebastian eguna ospatu zuten.

Urtarrilak 20a, Donostian egun garrantzitsua da, San Sebastian eguna. Danbor eta kupel hotsek Sarriegiren doinuen erritmora Donostiako auzoetako kaleak jai giroan murgiltzen dituzte. Baina Lasarte-Orian ere, jai horrek badu bere isla. Etxeko txiki eta gaztetxoek bezperan ikastetxeetako patioak eta ingu-

ruak rataplanez bete zituzten. Dotore haiek egindako jantziak soinean zituztela, ederki astindu zituzten danborrak guraso eta senideei hain trebetasuna erakutsiz.

Herria alaituz

Sasoeta-Zumaburu ikastetxe-ko txikiak izan ziren lehengoak Sarriegiren martxak jotzen. Eguraldia lagun,

Zumaburuko ikastetxea eta Isla plaza arteko bide egin zuten txintxo-txintxo eta bertan eskaini zuten emanaldia.

San Sebastian martxa, Tatiago edo Errealaren ereserkiak jo zituzten plazan eta bildutako senide eta herritarren gozamenerako.

Sasoetako erakinean ere izan zen jai. LHko gaztetxoak ez ziren gutxiago izan eta doinuen eta zuzendarien erritmoari ederki jarraitu zioten.

Garaikoetxean eta Landaberri ere entzun ziren danborhotsak San Sebastian bezperan. Atsokabarreko eraikineko

gaztetxoek euren trebezia erakutsi zuten guraso eta lagunuen aurrean; doinu ezagunenak jo zituzten zuzendari gaztetxo eta helduen laguntzaz.

Zubieta inguruan apur bat beranduago hartu zuten lekukoa, 16:10 inguruan. Anfiteatro zabalean aritu ziren ikasle eta irakasleak, sukaldari jantzi zuriak soinean, Donostiako egunari euren omenalditxo eskainiz.

Danbor-joleen guraso eta lagunek gogotik gozatu zuten gaztetxoaren emanaldiez. Batek baino gehiagok argazki eta bideoak grabatu zituen sakelekoak zein kamerak eskuan.



Josue
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak Barruko berrikuntzak

Estalkien berriztatzeak Gremioen koordinaketa

606 37 21 05 | Atallu pol. atallu, 28 | USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

Neure kabuz



Unai Muñoa

Beharretik biharra

Beharretik sortzen da biharra... eta beharrak garatzen du ekintzarako giharra. Ase-beharra baita subkontzientean iparorratzak iradokitzen duen iparra... beharretik eraikitzen dugu biharra.

Beharra hitzak bi zentzu iradoki dizkit, ordea. Batetik, premia, bete beharrek hutsunea, eta bestetik, lana, norbere gaitasunak proban jartzeko unea. Nor naiz ni baina? Izu batean babes eske behin izan nintzen umea? Edo, heldutasunari dagokion legez, bere buruaz arduratzen den bidaiari xumea?

Altxorraren bila bizi izan naiz luza-roan, erabateko zoriona ekarriko zidan altxorra, kutxa batean kabituko balitz bezela. Ni bai ergela! Noiz sinetsi nuen zoriona nigandik at topatuko nuela? Kotxeetan, nesketan, politikan, elite ekonomikoetan, goi mailako sektore intelektuaren orgia filosofikoetan ... Noiz sinetsi nuen zoriona aurkitu egin behar dela? Ni bai ergela!

Zeren bila bizi naizen baino, zeri egiten diodan ihes hasi natzaio galdezka nire buruari, iheska ari gatzagionari beldur erabakitzen baititugu helburu ugari. Baina, adi! Ez badugu barrura begiratzen, ez badugu egin garena erreparatu, nola ezagutu zein den gure egiazko beharra? Premia da iparra, eta lana... edonora heltzeko bide bakarra, beharretik sortzen baita biharra.

Oraindik, behin izan nintzen ume izuti hura naiz askotan. Ezinbestekoa zaion maitasuna galtzeko beldur, bere ahuleziaren jakitun, gurasoen besotan. Orain gurasoak ez dira aita eta ama, ordea, baizik eta, behar ditudan pertsonen maitasuna eta gauzen balorea. Nire aukeretan sinetsi ezinda, ziurtasunik gabeko bizitzaren oihanean salbu sentitu asmotan. Noiz arte jarraituko dut baina nire buruarekin borrokan?


Gizadiaren sekretua ezkatuta nahian jardun zirenean, saiatu ziren itsasoko ur sakonetan, misterioz beteriko kobetan, basamortuko areetan... baina, azkenean... ia non saiatu ez zekitenean, otu zitzaizen ezkatutzea pertsona bakoitzaren barruetan, bai baitzekiten hor ez genuela inoiz begiratuko, kanpora begira bizi garen heinean.

Zorion agurrak



Conchi

Zorionak Conchi, etxekoan partetik! Muxu handi bat eta ondo pasa zure egunean!



Enaitz

9 Goxoki muxu. Oso ondo pasa zure urtebetetzean. Asko maite zaitugu!!! Elaia eta aita-txoren partetik!!!!



Saioa

Zorionak eta zazpi muxu handi guraso eta lkerren partetik.



Irati

Zorionak Bihotza!! 8 muxu potolo familia guztiaren partetik, asko maite zaitugu!



Amaia

Zorionak maitia zazpi muxu potolo familiaren partetik.



Irati Saga

Zorionak printzesa!! 7 muxu pottolo familiaren partetik.



Arantxa eta Vicente

Zuen seme-alaba eta bilobek 50. urteurren zorionsua opa dizuegu!!!!



Ane

Zorionak Ane zure 5. urtebetetzean!!! Muxu handi bat zure familiaren partetik.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Lokal komertziala alokatu edo saltzen dut, 40 metro karratu. Sasota auzoan, Uzturre kalea 7 izkina. Oso argitsua, dendaostea eta komuna du. Salgai 45.000 eurotan edo alokairuan 300 euro hilabetean. Interesatuak galde-tu Marianengatik, 685 780 857.
- Pisu bat alokairuan Usurbilen, 3 gela, egongela, sukaldea eta 2 komun. 3 balkoi, dena kanpoaldera. Tlfnoa: 658 756 344.

Salerosketa

- Bizkien karroa saltzen da. Easy Walker marka. Erosteke asmoa duenarekin prezioa adostuko da. Harremanetarako, 607 49 06 51.
- Emaztegaia eta almirantearen jantzi bana jaunartzeetarako. Merke. 943370092

Lan-eskaria

- Erizaintzako laguntzaile euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. 622 92 55 62 (Esther).

Bestelakoa

- Ile-apaintzaile profesionalak etxetik etxekozerbitzua eskaintzen du. Cristina, 633 31 69 98.
- Euskara, ingeleza edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 76 60 68.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Alexa Vazquez Garcia, urtarrilaren 8an.

Heriotzak

- Inocencio Martin Sanchez, urtarrilaren 20an, 83 urte zituela.
- Maria Natividad Castilla Aoi, urtarrilaren 20an, 67 urte zituela.
- Elias Hueso Martin, urtarrilaren 19an, 72 urte zituela.
- Dolores Castillo Gavilan, urtarrilaren 18an, 82 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 22 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Larunbata, 23 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 24 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astelehena, 25 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteartea, 26 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteazkena, 27 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Osteguna, 28 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elosegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kirolegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:
Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

SANEAMENDU-SAREA

Kolektore berria Lasarte-Orian

Lanek lau hilabete iraungo dituzte

Añarbeko Urak-ek Zubietako ponpaleku berriaren eta kiroldegia-aren arteko kolektorea eraikitzen hasi da. Lanek Bekokale, Ola kalean eta Erribera kalean izango dute eragina. Hodi berriak Zubietako HUPera bidaliko ditu herriko urak eta bertatik Loiolako araztegiara. Lan honekin herriaren saneamendu-sistema amaitutzat emango da.



Añarbeko urak enpresako lehendakaria alkateari lanen azalpenak eskaintzen.

TXINTXARRI

Atzo kiroldegia eta Zubietako Hondakinaren uren ponpalekua, HUP, batu-ko dituen kolektorearen lanak hasi ziren Bekokale bidean. Hortaz baliatuz, Añarbeko urak eta Lasarte-Oriako Udalak lan hauen berri eman zuten. Aurkezpenean besteak beste Jesus Zaballos alkatea eta Enrique Noain Añarbeko urak enpresako lehendakaria izan ziren.

Kolektorea

Jesus Zaballos alkateak lehenik eskerrak eman zizkion Añarbeko urak enpresari "Lasarte-Orian 500.000 euro baino gehiagoko inbertsioa egiteagatik".

Jarraian, Noainek lan azalpenak eskaini zituen. Kolektoreak gaur egungo hoditeria ordezkatuko du, 400 mm-ko bi hodi eramango ditu eta 370 metroko luzera izango du, kiroldegia eta Zubietan eraiki den HUPa batuz.

Honen bitartez, Lasarte-Oria eta Usurbilek Ori ibaira egiten dituzten isurketak Loiolako araztegiara bidaliko dira. Izan ere, lan hauen helburua herritarrek Ori

ibaia garbiaz gozatu eta ibaiaren berreskuratzea bultzatzea da.

Lanak Zubieder eraikuntza enpresak egingo ditu eta lau hilabetez luzatuko dira, "maizta hasierako amaitua egotea espero dugu" aipatu zuen Noainek.

Epeak

Aurkezpenean azaldu legez, azken astean, Erribera eta kiroldegia-aren artean "zundaketak" egin dira, lur azpian dauden zerbitzuak zein diren zehaztasunez jakiteko. Atzo Bekokale bideko lanak hasi ziren. Martxoaren lehen astean, Erribera eta Ola kale zatiko obrari ekingo zaio.

Noainek azaldu zuenez, lan hauekin Ori ibaiaren garbiketa behin betiko bere azken txanpan sartzen da. "Orain dela gutxi Ingurumen Ministerioaren Kantauriko Hidrografia Konfederazioak eraiki duen saneamendu sistema berri eta handiari kolektore hau gehitu behar zaio".

Hala ere, "otsailean Zubietako HUPa martxan jartzean lanak amaitu arte hoditeria zaharra erabiliko da", aurreratu zuen.

Eragozpenak

Lan hauek hainbat eragozpen

sortuko dituzte, baina Añarbeko urak enpresak "enpresa eraikitzaileari obraren zati ezberdinetan seinaleak eta hesiak jartzerakoan arreta handiena jar dezala, obrak eragingo dituen eragozpenak bai oinezkoek bai trafikoari ahalik eta gehien murrizteko" eskatu dio.

Honen harira, asteazkeneko merkatuan Erribera kalean jartzen diren postuak leku aldatuko direla aurreratu zuen alkateak: "Libre geratu diren beste lekue- tan kokatuko dira".

Herritarrek jakinaren gainean

Gainera, 'Oriaren garaia da!' lelopean auzotarren artean komunikazio kanpaina egin dutela jakitera eman zuen Añarbeko urak enpresako lehendakariak.

"Bigarren aldia da horrelako zerbait egiten duguna. Eskutitza bidez edo portaletan jarritako posterren bidez lanen nondik-norakoak jakitera eman dizkiegu", azaldu zuen.

Azalpen gehiago edo lanei buruz kexatu nahi duten herritarren eskura 639 77 97 97 telefono zenbakia jarri dutela ere adierazi zuen.

AKATSAK ZUZENTZEN

Erraustegiaren aurkako giza-katea otsailaren 20an Andoainen

Aurreko zenbakian, hondakinaren erraustetaren aurka eta Zero Zaborren aldekoen bilkurari buruzko informazioa eskaini genuen. Bertan Andoaingo Ipar Haizea taldearen aurkezpenaren berri ematen genuen eta urtarrilaren 20an ekintza bat antolatua zutela aipatzen.

Okerreko informazioa eskaini genuen berriari. Izan ere, Andoaingo Ipar Haizea taldeak deitutako giza-katea otsailaren 20ean izango baita.

IPAR MARTXA

Ipar Martxa irteera bihar

Bihar Ipar Martxako taldeak urteko lehen irteera egingo du. Goizeko 10:00etan aterako dira Okendo plazatik. Hamaiketakoarekin batera, Osakidetza-ko psikiatra batek hitzaldia emango du. Ipar martxaren onurak osasun mentalararen ikuspegitik aztertuko dute.

HITZALDIA

Zaintzaileentzako laguntza-taldeak

Urtarrilaren 26an, asteartean, Manuel Lekuona kultur etxean 'Etxean Zaintzearen Erronka: Zaintzaileei Zuzendutako Laguntza-Taldeak Babeserako Neurri Beza' hitzaldia eskainiko da.

Karme Gurrutxaga psikologoa izango da hizlaria eta mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen zaintzan diharduten familiek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako Departamentuak sustatutako Sendian Programaren bitartez, eskura dituzten tresnak aurkeztuko dira, hala nola, doako aholkularitza eta prestakuntza zerbitzuak diren laguntza-taldeak.

Lasarte-Oria badira 4 urte aipatutako programa martxan dagoela. Hilean bi aldiz elkartzen da herriko laguntza-taldea Villa Mirentxun eta saio hauetako gidari lanak Karme Gurrutxaga berak egiten ditu.

LA ESPERANZA AUZO ELKARTEA

Batzar Orokorreko deialdia

La Esperanza auzo elkarteak haien kide eta egoiliarrei urtarrilaren 24an igandea egingo den Batzar orokorrera deia egiten die. Lehengo deialdia 10:00etan izango da eta bigarrena 10:30ean.

Eguneko ordena: Aurreko aktaren irakurketa eta onarpena, kudeaketa balantzea, Batzorde kide berrien izendapena eta galderak eta erreguak.

Sutea Iberdrolako postean

Astearte goizean, Zumaburu parkean, autobus gaje zaharretik gertu zebiltzan herritarrek erre usaina sumatuko zuten. Arrazoiak, Iberdrolak duen poste elektrikoko batean sortu zen sutea.

Udaltzainak, ertzainak eta suhiltzaileak gerturatu ziren gertakariaren lekura.

Iristean postea sutan eta bikote bat horren ondoko

pabeloiko teilatuan aurkitu zuten. Bikoteak ez zuten bertatik jaitsi nahi eta sua itzali bitartean, bikotea konbentzitu zuten.

Udaltzainek azaldu digutenez, sutearen sorrera puntua oraindik zehaztear da.

Honetaz gain, bikotea kanpotarra zela eta postearen etxolan bizi zela ere jakitera eman digute.



JULIO BLEYE

Neguko eskaintza zabala Manuel Lekuonan

Manuel Lekuona kultur Metxeak neguko ikastaro eskaintza aurkeztu du.

Oroimen tailerra, bizkarreko mantenimendua, coaching familiarra, olio eta pintura, polinesiako dantzak, literatura tailerra, egur taila eta ardo dastatzea dira herritarrek egin ahaliko dituzten ikastaroak.

Egunak eta orduak

Saioak astean behin dira eta otsaila hasieratik martxo erdialdera antolatuta dira, ardo dastatzea izan ezik.

Oroimen tailerra astelehenera, 17:00etatik 19:00etara izango da; bizkarreko mante-

nimendu ikastaroa asteartean, 19:45etik 21:15era; coaching familiarra, astelehenera, 19:15etik 21:15era; olio eta pintura asteartean, 18:00etatik 20:00etara; Polinesiako dantzen saioak ostiraletan izango dira 10:30etik 12:30era; Literatura tailerra ostiraletan, 17:00etatik 19:00etara eta Egur taila asteazkenetan, 17:30etik 20:30era.

Ardo dastaketa ikastaroa aldiz, egun bakarrean egingo da. Interesa duten herritarrek martxoaren 4an arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara ardoak nola dastatu ikasiko dute.

Izena ematea

Prezioak ikastaroaren arabera-koak dira. Herrian errolatutako pertsonak 14,96 euro eta 185,25 euro artean ordaindu behar dute eta errolatuta ez daudenek, berriz, 24,94 euro eta 308,75 euro artean.

Manuel Lekuonako arduradunek gogoratzen dute, adinez helduak diren herritarrei zuzendutako ikastaroak direla, baita osatuko diren taldeek ikastaroen hizkuntza erdua baldintzatuko dutela ere.

Izen ematea urtarrilaren 28a baino lehen egin behar da Manuel Lekuona kultur etxean.

Elebeltzen aldeko plataforma sortu da

Udalak Elebeltzen jarduna eteteko prozesua hasi duela salatu dute

Elebeltz Topagunearen aurkako eraso salatu du sortu berri den plataformak. Besteak beste, bertako jarduna geldiarazi, "inongo frogarik gabe" herritar bat inplikatu nahi izana eta "erabaki politiko bat estaltzeko" alkatetza dekretua erabiltzea kritikatu dute. Horren aurrean emango dituzten urratsak azaldu zituzten atzo arratsaldean Okendo plazan emandako prentsurrekoan.

TXINTXARRI

Atzo azaldu zuten, lehengo astean herritar batek alkatetzaren dekretua jaso zuen "mehatxuak eta presioak" jasoaz. Lokaleko jabeari ere egoeraren berri eman diote; haien ustetan, "Elebeltzen kontrako neurriak hartzeko presioa eraginez".

Lau urtetan espazio horretan egindako lana aldarrikatu du Elebeltzen aldeko plataformak. "Zaborrez beteta eta usteltzen ari zen espazio hutsa berreraiki eta kolorez bete" dutela nabarmendu dute.

Intentzioa salatu

Adierazi zuten, "erabaki politiko" izan da, Udal korporazioak "Elebeltzen atek

ez dituelako irekita ikusi nahi".

Horregatik, herritarren aurrean zenbait puntu salatu nahi izan zituzten.

Okupazio mugimendua kriminalizatu nahi du alkatetza, plataformaren ustez. Halaber, herritar bati eginiko "mehatxuak" eta horiek aurrera eramateko egindako "bermerik gabeko prozedurak" salatu dituzte.

Halaber, "pribatuen arteko harremanetan sartu" direla diote, "bi aldeak mehatxatuz".

Elebeltz ondoan asteartean gertatutako sutearen "susmagarritasuna" ere azpimarratu zuten.

Neurriak

Hemendik aurrera eman beharreko urratsak eta hartu-



Elebeltz topagunearen kontrako "eraso" salatzeko prentsurrekoa eman zuten Okendo plazan.

ko dituzten neurriak ere azaldu zituzten atzo.

Lehenik eta behin, Elebeltz Topaguneari eta bertako kideei "babes osoa" adierazi diete, baita "mehatxua jaso duen herritarrari" laguntza eskaini.

Bestalde, prozedurari errekurtsio aurkeztuko diotela azaldu zuten eta Arartekoaren aurrean salaketa jarriko dute. Udaltzarrean mozioa aurkezteko asmoa ere badute.

Horietan denetan azpimarratu nahi dute "alkatearen mehatxua" izan dela eta, horregatik, "erabaki politiko baten ondorioa."

Halaber, Elebeltz Topagunea kokatuta dagoen pabiloiko jabearekin kontaktuan jartzeko asmoa azaleratu zuten, akordio batera iristeko asmotan.

Azkenik, "gaztetxe eta okupazio mugimenduen aurkako kriminalizazioa"

salatu zuten, "erasoak jaso dituzten gaztetxe eta bertako kideei" babes eskainiz.

Babes bila

Elebeltzen aldeko plataformak Lasarte-Oriako eragile ezberdinen eta herritarren babes bilatzen du, erantzun bateratua emate bidean.

Prensurrekoari amaiera eman diote "kulturgintza herrikoaren aurkako eraso" dela salatuz.

Elkarbizitzaren aldeko jardunaldiak Lasarte-Orian

Hurrengo astean, urtarrilaren 26 eta 28an, arratsaldeko 19:00tan, Antonio Mercero aretoan, 'Bizikidetzaren berreraikitzen' jardunaldiak antolatuko dira udal taldeek adostuta.

Asteartean Andres Krakenberger giza eskubideen aldeko aktibista izango da lehen gaiari buruz solasean, 'Oroimen kolektiboa eta bateratzaile bat helburu' izenpeko hitzaldian. Ostegunean, berriz, 'Torturaren ikerketa Euskadin. 1960-2010' txostenari buruz mintzatuko da

Paco Etxeberria Aranzadi taldeko kidea.

Jardunaldi hauek Baketik elkarteak gure herrian elkarbizitzaren alde egiten ari den lanaren ildoetako bat da. Izan ere, udal taldeekin bizikidetzaren inguruan hausnartzean ari baita elkarteak, baita herritar talde batekin ere.

Elkarrizketarako gunea

Rosa Bell Ausin, Mari Karmen Ormazabal, Kike Intxausti, Jose Zato, Jexus Artetxe, Pello Sasiain, Txanpi Baztarrika, Juan Alkorta, Mercedes Marti-

nez, Ixabel Zuaznabar, Amaia Goiaran, Josu Agirretxe eta Jesús Marcos dira herritarren taldea osatzen duten lagunak eta 2014 urteko urriaz geroztik, lanean ari dira "horrenbeste arrazoi eta gertaeren ondorioz -iraganekoak zein egungoak- urratu den elkarbizitza berreraikitze aldera".

"Arrazoi politikoak zirela medio giza eskubideak urratu izana, sufrimendu iturri izugarria izan da zuzenean pairatu dutenentzat. Baina ez hori bakarrik, horretaz gain, leku askotan, Lasarten ere bai,

ideia politikoak tarteko hurkoari errespetua galtzea ekarri du," atxikitzen dute.

Azpimarratu duten modura, "bizilagun talde bat gara; gure burua, eta ez beste ezer ez inor ordezkatzeko asmoarekin".

Taldeak Baketik laguntzaz ezberdinen arteko elkarbizitza ahalbidetu duen espazio bat sortu du zintzotasunetik eta zentsurarik gabe hitz egiteko, baita beste ikuspuntu batzuk ezagutu eta elkar entzuteko ere.

Erroka handia eta bide

luzea dela argi dute, baina elkarrekin lan egiteko prest agertzen dira kideak. "Gure herrian elkarbizitza aldatu eta posible egingo duen bideak jorratu nahi ditugu; inork gehiago bere ideia politikoenatik sufritu behar ez dezan".

Herritarrei jardunaldietara hurbiltzeko gonbita egin diete, baita taldean parte hartzera ere.

"Gure herrian bizikidetzaren berreraikitzea ez da soilik politikarien lana, guztiok gure ekarpena egin dezakegula sinisten dugu," adierazi dute.

"KORROTIK PIKUTARA"

Euskal dantzaren historia aztertzen duen hitzaldi-dantzaldia: dantza molde zaharretatik gaur egungo dantza formetara

Noiz: Urtarrilak 27, arratsaldeko 19.00etan

Non: Sasoeta ikastetxeko soinketa gelan

Izen-ematea: Ttakuneko bulegoan, aisia@ttakun.eus, 943 37 14 48 edota 695 785 392 (WhatsApp)

*Ikastaroa euskaraz eta doan izango da. 16 urtetik gora.



Mundutik Lasarte-Oriara

Hitzaldi zikloa antolatu du herritar talde batek zenbait herrialdeetako esperientziak partekatze

Munduko herrialde desberdinetan ibili dira gazte lasarteoriarak azken urtean. Helburu ezberdinekin abiatu ziren, baina bizipen ahaztekin itzuli dira denak. Lasarte-Orian bueltan direla, bizitako esperientziak partekatze 'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' izeneko zikloa antolatu dute. Herrialde bakoitzari bi asteko tartea eskainiko diote eta ekintzak eta hitzaldiak egingo dituzte. Urtarrilaren 30ean hasiko dira, Herrialde Katalanei eskainitako tartearekin. Testigantzak gertutik ezagutu nahi dituzten lasarteoriarrentzat aukera paregabea.

Zikloari hasiera emateko Herrialde Katalanei buruzko hitzaldia egingo dute Villa Mirentxun. AldarriCATuz taldeko kideek gaurkotasunaren haritik helduko diote beraien herriko egoera azaltzeari.

Lasarteoriarrek ez gidatutako hitzaldi bakarra izango da, baina jardunaldi internazionalista hauek aurkezteko aukera paregabea dela pentsatu dute antolatzaileek. Izan ere, aktualitate politikoaren erdigunean dago gaur egun Katalunia.

Euskal Herrian bizi diren kataluniar talde batek osatzen du AldarriCATuz. Herrialde Katalanetan ematen ari den askapen prozesua aztertuko dute.

Bi asteko zikloak

Otsailean hasiko dira 'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' jardunaldietako zikloak. Jorratuko dituzten herrialdeak hauek dira: Palestina, Txile eta Maputxe herria, Venezuela, Peru, Bolivia, Kuba, Sahara, Mexiko eta Txipapas.

Herri bakoitzari bi aste eskainiko zaizkio. Gutxienekoa antolatzaileen hitzaldia izango da, eta ondoren, hura hornitzeko ekintzak egingo dituzte. Jorratuko duten nazioei buruzkoak izango dira, bertako elementu kulturalak, elikagaiak, ohiturak, etab. erakusteko.

Ondorioz, udara bitartean luzatuko dira 'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' jardunaldiak. Azaldu dutenez,

"desberdinak izango dira haien artean, norberak bere bizipenetan oinarritutako hitzaldiak" egingo baitituzte.

Jorratuko dituzten herrialdeetako herrikideak gonbidatzea ez dute baztertzeko. Antolatzaileen aldetik "interesa" badela aitortu dute eta "gonbidapena luzatuko zaie". Aukera sortuko balitz, entzule edo hizlari moduan ekarpenak egitea positibotzat ikusten dute. Hala ere, onartu dute, printzipioz, "ez dela berehalako lehentasuna".

Hizkuntza eredu ere partaideen eta hitzaldien arabera izango da. Euskara eta gaztelania uztartuko dituzte, hasiera batean.

Sinpletasunetik abiatuta

Parte hartzaileek azpimarratu dute "umiltasunez" eutsi diotela eronkari. Ez dute argazki orokorrik eman nahi ezta irudi absoluturik erakutsi nahi. "Aurkitutakoa azaltzea" dute helburu, hau da, "bizipenen arabera lanketa" egitea.

Hortik aurrera, saiatuko dira ahalik eta ekimen erakaragarrienak osatzen.

Kontuan izanik jardunaldiak hilabete batzuetan luzatuko direla, "hasierako esperientziak hurrenak osatzeko" ere balioko dute. Bizipenen artean dagoen "aniztasuna kontuan harturik, bata besteara aberasteko ahalegina" egingo dute.

Aukera erakargarria

Azken urtean, munduan



'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' ekimena aditzera emateko ateratako talde argazkia.

zehar zenbait gazte lasarteoriar ibili izanak motibatu du zikloaren antolaketa.

Haien ustez, jardunaldi erakargarriak izan daitezke lasarteoriar askorentzat. Izan ere, herrikideen esperientziak eta inpresioak lehen eskutik entzuteko aukera izango dute.

Halaber, antolatzaileen hitzetan, "beste herrialde zantatu batzuetara bidaiatzeko eta tokian tokiko egoerak euren begiekin ikustera anima daitezke".

Partaideak

Helburu ezberdinekin ekin zioten bidaiatzeari 'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' jardunaldietako kideak.

Ikasketekin jarraitzea joan ziren Ioritz Iparragirre eta Mainer Galardi Txilera eta Mexikora, hurrenez hurren. Ikasle mugimenduaren ikuspuntutik aurkitutako errealitatea kontatuko dute, baita Txipapasi eta Maputxe herriari buruz ikasitakoa.

Kooperante gisa abiatu zen Nerea Arteaga Peru alde- ra. Egondako eskualdeko

Herrialde Katalanak, Palestina, Txile eta Maputxe Herria, Mexiko eta Txipapas, Sahara, Peru, Kuba, Bolivia eta Venezuela dira jorratuko dituzten herrialdeak. Otsailetik aurrera hasiko dira eta bi asteko zikloa eskainiko diote bakoitzari.

esperientzetaz arituko da gehienbat.

Igor Arias eta Iker Ortega brigadista moduan joan ziren Boliviara eta bertako errealitate politikoa ezagutu ahal izan zuten. Ondoren, Venezuelan eta Hego Ameriketako beste herrialde batzuetan ere egon ziren.

Abuztuan Kuba zeharkatu zuten Irati Perezek, Ane Labakak eta Urdiñe Fernandezek, eta bidaiari bizitakoa partekatuko dute.

Andoni Mujika Argeliako sahararren errefuxiatu guneetan egon zen abenduan, eta urteetan eduki du harremana bertako familia askorekin.

Herritarrek eskainitako lehen hitzakdia Palestinari zuzendutakoa izango da. Oihan Agirretxe herritarra bertan izan zen abuztuan brigadista moduan, eta bertako gatazka jakitera ematea izango du helburu hitzaldia. Izan ere, azpimarratu duenez hori da palestinarrek nahi dutena. "Hemendik hara joatea eta bueltan ikusitakoa herrikideei transmititzea".

Ez da bere lehenengo hitzaldia izango, Usurbilen lehenago bat emana baita. Orduan bakarrik aritu zen, eta ahal balitz, oraingoan brigadako beste kideek parte hartzea nahiko luke, ikuspegi osoagoa ematearren.



ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria • Tel: 943 36 12 78 / 943 36 16 55 / 943 36 24 51

zerbitzu
mistoak

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

- Makillajea
- Manikura eta pedicura
- Era ezberdinetako depilazioak
- Befileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

LABURRAK.-

Buruntzaldea IKTKo gaztetxoek primeran Legazpin, Neguko VIII. sarian

Maila ederrean aritu ziren Buruntzaldea IKTKo bost igerilari pasa den larunbatean, Legazpin jokatuako Neguko VIII. sarian. Jon del Riok zilarrezko eta brontzezko domina bana kolokatu zituen, 50 librean eta 100 estiloetan hurrenez hurren. Ane Otaegi ere podiumaren hirugarren koskatxora igo zen, 100 estiloetako proban hirugarren postua eskuratu baitzuen. Hori gutxi balitz, proba jokatzeraz joandako igerilariak denbora oso txukunak egin zituzten. Aipatutako biez gain Ibane Otegui, Daniel Herranz eta Maria Garasa aritu ziren Legazpiko igerilekuan. 50 libre, 100 estilo, 100 bular eta 100 libre probak burutu zituzten. Prestaizaileak gustura dira igerilariak eskainitako mailarekin.



Bestalde, Master taldeko kideek Benta Berriko kiroldegian konpetitu zuten, III. Kairoscore sarian hain zuzen. Gogotsu aritu ziren Yolanda Pastor, Laura Igea, Joel Lopez eta Eñaut Fernandez de Lezea, banakako probetan zein erreleboetan igeri eginez, eta haiek ere denbora oso txukunak egin zituzten, baita hainbat marka pertsonal berri ezarri ere.

Lauko Finala jokatu du Ostadar SKTKo junior errendimenduko taldeak Gasteizen

Saskibaloia izango da asteburuko protagonista nagusietako bat kirolari dagokionean. Ostadar SKTKo junior nesken errendimenduko taldeak lauko finala jokatu du Gasteizen. Arabako Araskiren aurka neurtuko dituzte indarrak bihar Ander Otaegik zuzendutako jokalariek, 10:00etan, Divino Maestro kiroldegian. Endika Marrahi koordinatzaileak zehaztu duenez, saskibaloizale, guraso, lagun eta nahi duen orok taldearekin batera bidaiatu dezake autobusez. 7:45ean irtengo dira Udal Kiroldegitik.

Irabaziz gero, igandean jokatuko lukete final handia, 15:30ean. Ordiziak eta Getxok jokatuko dute beste finalaurrekoa.

Jesus Curiel LOKEko judoka infantilak brontzezko domina eskuratu zuen Tortosan

Espainiako Kopa jokatu zuten LOKEko judoka infantil eta juniorrek Tortosan (Herrialde Katalanak), emaitza bikainak erdietsiz. Jesus Curiel infantilak brontzezko domina jantzi zuen, borrokal dietan maila bikaina erakutsiz. Seitan aritu zen denera. Bestalde, Fermin Balda juniorra bosgarren izan zen sailkapenean eta maila oso txukuna eman zuen.

Larunbat honetan Espainiako Superkopa jokatu duen kadeteek Hondarribian. Ander Garrido, Jon Herrero, Yeray Mendibe, Alex Saleta eta Mikel Lasa ariko dira proba horretan. Igandean berriz, alebiren eta eskola kiroleko gaztetxoek txanda izango da, Hondarribian bertan baita ere.

ATLETISMOA.-

Kirola beste ikuspuntu batetik

Goi-mailan konpetitzeari utzi beharko dio Endika Gartzia herritarrek, aorta arteriako dilatazio bat dela-eta

“Kirola egitea ez didate debekatu, edozein diziplinatan aritu naiteke, beti ere bihotzeko pultsazioak kontrolatuz eta muga ez gaindituz”. Endika Gartzia hitzak dira. Elitean konpetitzeari uztearen arrazoiak, kirolariak frogak egitearen garrantziaz eta etorkizuneko asmoak aritu da herritarra, luze eta zabal.



Kirola egiten jarraituko du Endika Gartzia, baina goi-mailan konpetitu gabe.

IÑIGO GONZALEZ

2007an jakin zuen herriko kirolariak bihotzeko aorta arterian dilatazio bat zeukala. Orduan ez zioten debekatu konpetitza, eta topera aritu da azken urteotan hainbat modalitatetan.

Pasa den urtean beste ekografia bat egitea erabaki zuen. Orduko horretan, dilatazioa 5 milimetro hazi zela ikusi zuen kardiologoak, baina hark ere ez zion konpetitza debekatu.

“Abenduan esfortzu-probak egin nituen Orioko BPX zentroan, eta informea osatzeko, ekografia ere eman nion medikuari. Hark, txostena ikustean, kirolean espezializatutako kardiologo batekin kontsultatu zuen. Hurrengo egunean deitu zuen, esanez ezin nuela jarraitu goi-mailan konpetitzen”, azaltzen du herritarrek. Behin betiko diagnostikoa pasa den astean jaso zuen, Bilbon.

“Esperantza txiki bat bagenaraman Orioko medikuak eta biok, baina argi daukat behin diagnostikoa ezagututa ez naitela hasiko bigarren iritzi bila, nik nahi dudana entzutearen bila; onartu, eta kitto”, dio Gartzia. “Ekuazio baten bidez egin zuen kalkulua kardiologoak, jakiteko zenbat taupadatara jarri dezakedan bihotza. Muga gaindituz gero, zainaren pareta zartzeko arriskua dago, urgentziaz egin beharko lidakete ebakuntza”.

Beste ikuspuntu bat

Herritarrek garbi uzten du kirola egiten jarrai dezakeela: “Diziplina guztiak landu ditzaiket. Kontua da kontrolatu egin behar dudala eritmoa, pultso-metro batekin”.

“Egunero zerbait” egin nahi du Gartzia, errutina ez galtzeko: “Kirola egiteari uzten badiot, kolesterola eta gainontzeko baloreak igo egingo lira-

teke, pisua hartuko nuke... Hori okerragoa litzateke”.

Konpetitzen aritu denez, denboraldian zehar alde batera utzi behar izaten zituen plan batzuk egingo ditu aurrerantzean herritarrek. Esaterako, lagunekin eskiatzera joan eta taldean sarriago ibili, bakarka entrenatu ordez.

Prebentzioaren garrantzia

“Gero eta jende gehiagok presatzen ditu lasterketa herrikoiak, triatloiak eta antzekoak. Esfortzu-probarekin konformatzen dira asko, baina zenbait arazo posible ez ditu islatzen. Ekografia eta antzeko frogan garrantzia azpimarratu eta egitea gomendatu nahi dut, gaztetxoek artean batez ere”, adierazten du Gartzia. “Ezer ez badaukazu, jarrai dezakezu lasai asko hainbat urtez eta, zerbait edukiz gero, sustoak eta arazoak saihesteko baliagarria da oso”.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 23

Michelin, 12:15ean

Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro Kadeteen Ohorezko maila, 17. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Ostadar SKT - Mariño CD Jubenilen I. maila, igoera fasea, 4. jardunaldia.

Fanderia, Orereta, 16:30ean

Touring CD - Ostadar SKT Erregionalen Ohorezko maila, 19. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Texas Lasartearra - Ostadar SKT Erregionalen I. maila, Kopa, 4. jardunaldia.

Ibarra, Aretxabaleta, 17:30ean

Arizmendi KE - Ostadar SKT Emakumezkoen Lurralde maila, igoera fasea, 5. jardunaldia.

IGERIKETA

Larunbata 23

Udal Kiroldegiko igerilekua, 16:00etan Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutuek etxean jokatu dute Neguko Ligako laugarren eta azken jardunaldia.

SASKIBALOIA

Larunbata 23

Udal Kiroldegia, 18:00etan Ostadar SKT - Summa Aldapeta Partizipazioko junior neskek, 14. jardunaldia.

Hondartza, Hondarribia, 18:00etan

Miramar Hondarribia - Ostadar SKT Errendimenduko Kadete neskek, bigarren fasea, 1go jardunaldia.

Igandea 24

Udal Kiroldegia, 11:00etan Ostadar SKT - Askatuak Seniorren 3. probintzial maila, bigarren fasea, 3. jardunaldia.

PILOTA

Larunbata 23

Michelingo pilotalekua, 16:00etatik aurrera Intza KEko bigarren urteko alebinek Atzaparren aurka jokatu dute 16:00etan, Gipuzkoako txapelketan. 2. eta 1go mailako seniorrak aldiz Udaberrikoan daude murgilduta. Iparraldekoak eta Oriko taldeen

aurka neurtuko dituzte indarrak, hurrenez hurren.

Gurea pilotalekua, Azkoitia, 16:00etan

Azkoitia - Intza KE Jubenilen 1go maila, Udaberriko Txapelketa.

Igandea 24

Atano III.a pilotalekua, Donostia, 17:00etan Olaetxea eta Apraiz - Arteaga II eta Imaz Profesional maila, binakako partida.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 22

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean Trumoi - Txindoki Michelingo kirol-gunea, 20:45ean Izkia - Txoko

Abraham Olano, Anoeta, 21:30ean

Anoeta FT - Cecilia Kebab Ostadar Gipuzkoako II. maila, 14. jardunaldia.

Larunbata 23

Michelingo kirol-gunea, 9:15ean Indaux - Ilargi Michelingo kirol-gunea, 10:15ean Viña del Mar - Reformas Lagunak Michelingo kirol-gunea, 11:15ean Also - El Punto Michelingo kirol-gunea, 12:15ean TSST - Kattagorri Insausti

Igandea 24

Michelingo kirol-gunea, 10:30ean Lasarte Kafe Bar Ostadar - Summa Aldapeta Gipuzkoako jubenilen maila, 11. jardunaldia.

Agenda

Larunbata, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur etxea



Cyranoren abentura musikatuak

Placido Domingo abeslariak 75 urte beteko dituela ospatzeko 'Cyrano de Bergerac' opera proiektatuko dute Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan. Literaturako lan klasikoa operara eraman zuen XIX. mendean Franco Alfano konpositore italiarrak. Opera zaletuek Valentziako Palau de les Arts Reina Sofian 2007 urteko otsailean grabatutako saioa ikusteko aukera izango dute. Sarrera, 9 euro.

'Torturaren ikerketa Euskadin. 1960-2010' izango du mintzagai.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astearte, 18:00etan

Karmele Gurrutxaga psikologoak 'Etxean Zaintzearen Erronka: Zaintzaileei Zuzendutako Laguntza-Taldeak Babeserako Neurri Bezala' hitzaldia eskainiko du.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Urtarrilean zehar

Jose Luis Oria margolariaren lanak, lore, paisai edo bodegoiak ikusgai.



Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Gaur, ostirala, 22:00etan

Okendo Zinema Taldearen eskutik, 'Rams (el valle de los carneros)' filma islandiarra izango da zine forumean. Sarrera, 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, 'El viaje de Arlo' animaziozko filma ikusteko aukera. Sarrera, 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 20:00etan

Helduentzako zinea atalean, 'Truman'

Ces Gayk zuzendutako filma ikusteko aukera. Sarrera, 5,50 euro.

Musika

FURIA BELTZA TABERNA

Ostirala, 23:00etan

Ñaco Goñi eta Fernando Beizteguiren kontzertuaz gozatu ahalko da.



Irakurle Txokoa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astearte, 26, 18:30ean

Irakurle txokoko lagunak Euskadi saria izandako 'Su Zelaia' liburuari buruz mintzatuko dira Mikel Peruarena egi-

learekin. Txokoko gidari gisa, Danele Sarriugarte egongo da.

Jardunaldiak

ANTONIO MERCERO ARETOA

Baketik-ek Lasarte-Orian egiten ari den lanaren baitan 'Bizikidetzaren berreraikitzen' jardunaldiak izango dira. Bi saio ezberdin izango dira:

Astearte, 19:00etan

Andres Krakenberger giza eskubideen aldeko aktibistak 'Oroimen kolektiboa eta bateratzaile bat helburu' saioa eskainiko du.

Osteguna, 19:00etan

Paco Etxeberria Aranzadiko kideak

Hernani

Erakusketa

BITERI KULTUR ETXEA

Urtarrilak 21era arte, 18:00etatik aurrera

Jose Mari Igerategiren egur eskulturen erakusketa.

Andoain

Pailazoak

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala, 18:00etan eta larunbata, 16:30ean eta 19:00etan

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo bihurriek baserriko biztan oinarritutako 'Amalur' ikuskizun berria eskainiko dute. Sarrera, 5 euro.

Herritarren txokoa

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren omenezko meza ospatuko da, urtarrilaren 25ean, asteartean, arratsaldeko 17:00etan.

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean Urtarrilaren 25ean, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Galdutako betaurrekoak

Ikusteko betaurrekoak galdu ditut Sasoeta ibilbideko paseoan, N-1 errepide parekoan edo Plazaola bidean.

Aurkitzen dituenak mesedez jarri harremanetan honako telefono zenbakian, 600 67 78 72 (Axun).

Karteta jolasteko taldea

Emakume heldu bati larunbata arratsaldetan kartetan (mus, truke...)

jokasteko taldea sortzea gustatuko litzaioke.

Interesa duenak jar dadila harremanetan honako telefono zenbakian 21:30ak baino lehen: 943 36 33 71, Ana.

Eskertza

Urtarrilaren 23an egingo dute aurten go lehen ipar martxa irteera. Goizeko 10:00etan aterako dira Okendo plazatik. Hamaiketakoarekin batera, Osakidetzako psikiatra batek hitzaldia emango du. Ipar martxaren onurak osasun mentalaren ikuspegitik aztertuko dute.

Eskutitza

Udaletxeak pintadak gaitzesten ditu

Duela egun batzuk herria pintada ezberdinez "apainduta" agertu zen. Hainbat ika-mika, eztabaida, eta ikuspuntu ezberdinetako iritziak ikusi, irakurri eta hauek hausnartu ondoren, ekintza hau azaltzea beharrezko ikusi dugu:

Oraindik ere gertatzen diren eraso sexistak ikusirik, gure herrian eta orokorrean jendartean gertatzen den errealitate gaitzesgarri honi erantzun bat ematea beharrezkoa zela erabaki genuen. Horregatik aukeratu genituen begiak, hauen bidez herriaren begiak irudikatu nahi genituen, arazo hau ez baita zerbait isolatua, ez diogu honi era indibidual batean erantzun behar. Begi hauek herriaren presentzia azpimarratzeko balio dute, hau da, herritar bat erasotzen dutenean guztiok erasotzen gaituztelako. Begi hauek herriaren sentsibilizazio kolektiboa sustatzeko sortu genituen. Begi hauen bidez erasotzaileak herri guztiaren begiak izango ditu gainean.

Orain arte honen aurrean erabili diren betikopena, babesa, zaintza eta

jarrera paternalistak ekidin behar ditugu. Norbanakoaren enpoderamentutik, enpoderamentu kolektibora. Ez gaitzezen beldurtu, erasotzaileen jarrera baita aldatu behar dena.

Behar bada ez da jende guztiak gustuko duen ekintza bat izan, baina lasartearen kontzientzia piztea, erasoaren gaia eta gizartean lanketa feminista baten beharra hizpide izatea, eta etorkizunean orain arte hartu ez diren neurriak martxan jartzeko balio izan badu, gure helburua bete da.

Hortaz, aipaturiko guztia kontutan izanda, herritar orori luzatzen diegu gaurtik eta egoera hau aldatzea lortzen dugun arte sortu daitezkeen espazio, deialdi edota mobilizazio ezberdinetan aktiboki parte hartzeko deia; herriaren eraldaketa, herritarren eraldaketatik baino ez baita etorriko.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

Herritar talde bat

Sasoeta-Zumaburu herri-ikastetxea

Herrikoa, solidarioa eta etorkizunari begiratzen diona



- Euskal kultura eta euskara bultzatzen ditugu, geureak direlako
- Elkarbizitza proiektua: eskolako partaide guztiak elkarrekin joateko
- Agenda 21 proiektua: inguruarekin bat eginez
- Ingelesa: atzerrira begira
- Teknologia berrien erabilera: irratia, aldizkaria, informatika... gure tresnak dira
- Behar berezia duten ikasleentzako: gertuko jarraipena eta aholkulariak
- Liburutegi eta mediateka zerbitzuak
- Eskola ordurik kanpoko jarduerak
- Goiz txoko zerbitzua
- Jangela zerbitzua
- Garraio zerbitzua




Haur Hezkuntza
Zumaburuko eraikinean

Lehen Hezkuntza
Sasoetako eraikinean

BILERA EGUNA:

Urtarrilaren 26an,
17:15etan,
Zumaburuko eraikinean

Lasarte-Orian,
gure herrian!



MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Urtarrilaren 25etik
Otsailaren 5era



Kalbario bidea 4, Tel. 943 36 12 26
Zumaburu 13, Tel. 943 36 22 74
sasoetazumaburuikastetxea@gmail.com